

HIZKUNTZAK GORPUZTU



1. Azalpena

Ariketa honek sustatu nahi du ikasleek beren errepertorio linguistikoari buruzko hausnarketa egin dezaten. Adierazpen grafikoaren bidez, norberak sentitzen duen atxikimendua adieraztea eta finkatzea bilatuko da, gorpuztea emozio eta sentimentuekin bat egitea baita: barnera begiratzea, urteetan metatutako ideia eta sentimentuetan horiek atera daitezten.

Horrelako jardueretan beti azpimarratzen dugunez, ez dago ariketa zuzen edo okerrik. Sentipen eta bizipen guztiek merezi dituzte gainerakoan arreta eta errespetua.

2. Jarraibideak


Alboko irudia kopia paper batean eta bertan, neurri batean edo bestean, zure bizitzan presentzia izan duten hizkuntzak jarri. Hau da, hizkuntza bakoitza gehien egokitzen den gorputzeko zati edo organoan kokatu.

Hizkuntza bakoitzarekin duzun edo izan duzun harremana hobeki irudikatzeko, koloreak eta tamainak ere erabil ditzakezu.

Jarraian egin duzun irudia azaltzeko testu laburra idatzi, hau da, irudia hitzekin osatu. Nahi baduzu, irudiari, testuari edo biei izenburua jar diezaziekezu.

Bukatu eta gero, talde txikian elkarri erakutsi zer egin duzuen. Zure marrazkiak eta ikaskideek egindakoez badute antzik? Zertan da berezia? Zerbaitek harritu zaitu ikaskideen marrazkietan? Etorkizunean irudiko zerbait ezberdina izatea nahiko zenuke?

3. Oharrak




3.3. Material osagarriak

Behar izanez gero, ikasleei ariketaren adibide bat erakutsi ahal zaie:

Irudia eta testua: Fons M. i Palou, J. (2009), 139. or. (jatorrizko testua katalanez).

“Katalana. Nire ama hizkuntza da, beti eta mundu guztiarekin hitz egiteko erabiltzen dudana. Horregatik kokatu dut bihotzean, maite dudalako eta naizena egiten naudelako. Bihotza gorria da hizkuntzari diodan maitasuna adierazteko.

Ingelesa. Txikia nintzenean ingelesari gorroto nion. Ez nuen urrutitik ere ikusi nahi, baina haztearekin batera ikusi ahal izan ditut ezkutatzeko duen edertasuna eta eman ahal didan guztia. Orain asko gustatzen zait eta argi daukat nire bizitzaren parte bat ingelesez mintzatzen den herrialde batean pasako dudala.



Gaztelania. Oso ongi hitz egiten dut, txikitatik ikasi dudalako, baina horrek ez du kentzen buruko minak ematea. Gaztelaniaz mintzatzeko ohiturarik ez dudanez, egiten dudanean ongi pentsatu behar dut zer esan eta nola. Ematen dizkidan buruko min horiengatik kolore beltza eta trumoiak ikurak.

Greziera eta txekiera. Herri horietara ni bakarrik joan naiz. Oso gustukoa daukat bidaiatzea eta jendea eta kultura berriak ezagutzea. Ez dakit hizkuntza horietan mintzatzen, baina hitz batzuk ezagutzen ditut. Pentsamendu batean kokatu ditut,

oso oroitzapen politak direlako niretzat.

Italiera eta frantsesa. Gure hizkuntzaren antza dute biek. Ingelesarekin batera badira gertukoak sentitzen ditudanak. Belarrian kokatu ditut, ulertu besterik ez ditudalako egiten.

Tailandiera. Argi daukat handiagoa naizenean nire bizitzaren zati bat Tailandian pasa nahi dudala. Ez dakit noiz izanen den, baina dakidana da kultura horrek erakartzen nauela, baita hizkuntzak ere. Berdez jarri dut naturarengatik eta transmititzen didan bizitasunarengatik. Sabelaldean kokatu dut horretaz pentsatzen dudanean maiteminduta egonen banintz bezala sentitzen naizelako.”

4. Iturriak

Fons M. i Palou, J. (Grup PLURAL U. de Barcelona) (2009) “Els discursos sobre les

llengües dels futurs docents.” in La promoció de l'ús de la llengua des del sistema educatiu. Barcelona: U.B. (133-147)